

GETXO. Txosnak eskatzeko epea zaptura arte egongo da zabalik

Herriko jaietako ordutegia luzatu dabe dekretu barrian

Algorta, Erromo eta Portu Zaharrekoak eta auzoko jaiak desberdinu dabez arauak jartzean

Veronica Muñoz |

Udalerriko jaiak arautzeko dekretu barria atera dau Getxoko Udalak. Igazko dekretuagaz alderatuta, nahiko antzekoa dala esan leiteke, baina aldaketa batzuk be badakartza. Barritasun handiena musikea amatetako ordutegia da, luzatu dabelako.

Getxon 10 jai ospatzen dabez urtero. Bagilaren 15ean izan ziran lehenengoak, Andra Marin, eta azkenak zemendian izango dira, Algortako San Martin auzokoak. Dekretuak, hasteko, auzoko jaiak eta herriko jaiak desberdintzen dauz. Algortako Iñaki Deunaren jaiak, Erromo-koak eta Portu Zaharrekoak

dira herriko jaiak, jentetsuenak. Beste guztiak auzoko jaiak dira, Negurikoak, Zubilletakoak eta San Martin auzokoak, besteak beste.

Ordutegia aldatzeko ahalmena

Auzoko jaietan musikea goizaldeko 01:00etan amatatu behar dabe, igaz baino ordubete geroago. Txosnak, barriz, 02:30ak arte zabalik egongo dira. Getxoko Udalak ordutegi hori luzatzeko edo murrizteko ahalmena edukiko dau, jaian parte hartzen dagoen jentearen kopurua kontuan hartuta.

Herriko jaietan kontzertuak goizaldeko 02:00etan amaitu behar dira, igaz baino ordu erdi beranduago. Musikea txosnetan 03:30ak arte egongo da piztuta, igaz baino ordu erdi beranduago be, eta 4:30ean itxiko dabez. Bai herriko jaietan bai auzokoetan, dekretuak dino jaietako azken egunean ekitaldi guztiak gauerdian amaitu behar dira.

Txosnei jagokenean, auzoko jaietan txosna bakarria egongo

da, jaietako batzordeak ipinten dauena hain zuzen be.

Txosnak

Algorta eta Portu Zaharreko jaietan sei alkarteak edukiko dabe txosnea ipinteko aukerea, batzordeko txosnaz ganera. Erromoko jaietan, danetara, bost txosna ipini ahal izango dabez. Txosnak eskatzeko epea bagilaren 15ean, datorren zaptuan amaituko da. Alkarte guztien artean jaietarako batzordeak sortuko dabez.

Azkenik, nabarmentzekoa da aurtien Udalak musikea kontrolatuko ahalmena edukiko dauela. Berak erabagiko dau non ipini soinu iturriak, zenbat ipini eta horreen indarra be bai.

Horrezaz ganera, azterketea eskatuko deusie enpresa bati, jaietan sortutako zarateak ahalik eta eragin txikien sortu daian erea bilatzeko. Iñaki Zarraoa alkarteak azaldu dauenez, «oreka lortu gura dogu auzokoan naitasuna eta jentear jaietan ondo igaroteko daukan eskubidearen artean».

LEIOA. Aurkezteko epea, irailaren 13ra arte

Narrazino lehiaketea eratu dau Kultur Etxeak, txikitako bizipenak gogoratzeko

V.M. |

Gaztea nintzanean; nork ez dauz askotan gogoratu txikitako istorio bitxiak? Orain, gura daben guztiek istorio horreek kontetako aukerea daukie, eta, ganera, sari ederrak irabazi leikiez narrazinoei esker. Leioako Kultur Etxeak narrazino lehiaketea antolatu dau hirugarren urtez, gai hori oinarritzat hartuta: txikitako pasadizoak.

Gura dauen guztiak hartu leike parte lehiaketan. Helburu horregaz, adinaren arabera lau maila ezarri dabez: 18 urte artekoentzat, 19 eta 30 urte artekoentzat, 31 eta

55 urte artekoentzat eta 56 urtetik gorakoentzat.

Lehiakide bakotzak narrazino bi aurkeztu ahal izango dauz asko jota, euskeraz edo gaztelaniaz. Gitxienez hiru orriko beharrak izango dira, eta gehienez sei orri beteko dauz istorioak. Jatorrizko beharrak izan behar dira, argitaratu bakoak.

Beharrak aurkezteko epea irailaren 13an amaituko da. Narrazinoak Sabino Arana Kultur Gunean eta Pinueta-ko Kultur Etxean emon leitezke, postaz bidalita edo eskuz. Irabazleentzat 180 euro, diplomak eta garaikurrak prestatu dabez. Informazio gehiago Kultur Etxean.

LABURREAN

GETXO

Getxoko lau familia etxetik urtenarazo ebazan atzo Udaltzaingoak, lur mogimendu batzuen ondorioz

Getxoko Udaltzaingoak Algortako Andikoetxe kaleko 9. zenbakian bizi diran lau familia euren etxeetatik urten arazo ebazan atzo eguerdian. Izan be, eraikinaren aurrean eregiten dabilzan etxebizitzaren eraikinean lur mogimenduak gertatu ziran, eta horreen ondorioz etxe zaharra erortzeko arriskua egoan. Egoera aztertu arte, bertoko bizilagunak urtetea erabagi eben. Lur mogimenduen eraginez, etxe barria eregiteko obran ibiltzen ziran behargin bi zaurituta gertatu ziran, zauri arinakaz.

Zabaldut dabe Fadurako ikastaroetan izena emoteko epea

Fadura kiroldegian urtero emoten dabez udako ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dago. Ikastaroak garagarrian eta abuztuan izango dira, beti lez, eta danetarik egongo da aukeratzeko. Garagarri-lean eskaintzea handiagoa izango da: dantzak, aerobika, abenturazko kirola... Bestealde, bagilaren 17an datorren ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabaldut dabe. Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira.

Tangora Etxeko turismo bulegoa bihar zabaldut dabe

Turismo bulegoa zabaldut dabe bihar Tangora Etxean, KZ gune barriaren beheko pisuan, Algortako erdigunean. Bulegoa, ohikoa danez, uda osoan egongo da zabalik, irailaren 15era bitartean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Horrezaz ganera, Ereagako bulego nagusian ordutegia zabaldut dabe. Izan be, bulego hori 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta eguerdian ez dabe itxiko.

25.000 pertsonak ikusi dabez ikasturte honetan Kultur Etxeak antolatutako zine proiektuak

25.000 pertsonak hartu dabe parte amaitu barri dan ikasturte honetako zine denporaldian. Getxoko Kultur Etxeak antolatutako ekimena hiru zatitan banatuta dago: Zineklub zikloa, Zinema Paradiso -jatorrizko bertsinoan- eta umeentzako zinea. Jente gehien erakarri dauena Zineklub zikloa izan da. Horren barruan, *Lucia y el sexo* eta *Juana la loca* filmak izan dira arrakastatsuenak. Zinema Paradiso zikloaren barruan *Requiem por un sueño* izan da. Domeketan emondako filmek, danetara, 7.195 ume erakarri ebazan Getxo Antzokiraino.



VERONICA MUÑOZ

Aixerrotako postontzia, Alluitz mendiko tontorrean

Itxas Argia alkatetako mendi taldeko kideek postontzia ipiniko dabe Durangaldeko Alluitz mendiko tontorrean. Urteerea datorren domekan egin-

go dabe, eta ekimena egiten daben bigarren aldia izango da, igaz be postontzia ipini ebelako, Nafarroako Ezkaurren. Postontzia Aixerrotako irudia dauka. Alde batetik, mendizaleek mendiko tontorrera ailegau dirala jakin daien ipiniko dabe. Beste alde batetik, eta Aixerrota Getxoko irudirik esanguratsuenetakoa dala kontuan hartuta, udalerriko izena zabaltzeko asmoz prestatu dabe ekimena.